


EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXVIII

SAN SEBASTIÁN 15 DE MAYO DE 1913

N.º 1080



RAIMUNDO SARRIEGI

† 1913-KO JORRAILLA-REN 21-AN



RAIMUNDO SARRIEGI

IL ZAN 1913-KO JORRAILLA-REN 23-AN

R. I. P.

DONOSTI-ko *košketan* sortu dan lorerik atsegiñenetakoa, joan dan illian gure artetik eriyotzak eraman duben erritar maitia zan.

Euskaldun jatorra, donostiar bene benetakua, erri ontako zorionetan ta doakobeetan lenengo izan da bizi guzian.

Etzan emen jairik Raimundo-ren eresi samur, polit, alayik gabe. Esaten zuten Raimundo-ren eresiak muskullu usaya ere berekin izaten zutela ain ziran donostiar jatorrak.

Ala laja dizkigu Done Bastian egunerako eresi jakiñak, iñude ta lo-rezayan konpartzarakuak eta eziñ esan ala beste mota askotakuak.

Uri-batzarreko lagun izandu zan, ta orduban ere erakutzi zuben zenbateraño maitasuna zion bere erriari.

Gure artetik alde egin du, baña bere eresi politak emen gelditzen zaizkigu, ta abek entzutian idurituko zaigu gure artian oraindik daukagula.

Beti donostiarrak oroitu-ko dira beren erritar maitagarritzaz, eta Jaunari bigalduko dizkate beren otoitzat Raimundo-ren anima garbiaren alde.

EUSKAL-ERRIA

